

10/06/2009

Ezkio-Itsaso "Baratzeko lanei buruzko tailerra aurrera eramango da larunbatean Igartubeitin"

Orain arte tailer desberdinak antolatu dira Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoan, eta hurrengo eta hilabete honetako bigarrena, familiei zuzendutako Baratzeko lanak izenekoa izango dugu.

Jakinarazi zen bezala, azken asteetan Igartubeitiko tailerretan parte hartzen duten familiek galdetegi bat bete zuten, tailer didak-tiko hauek aurrera eramateko momentu onena noiz zen jakiteko. Inkestak bete eta hauek aztertu ondoren, tailerrak larunbatetan, ordutegia pixka bat luzatuz, aurrera eramaten jarraitzea erabaki dute antolatzaileek, hau baita egokiena. Horrela, aurreko larunbatean

Haziak landatu baratzera tailerra burutu ondoren, oraingoan ere kalera irtengo dira gaztetxoak, zehazki Igartubeiti parean dagoen baratzera, eta bertan aurrera eramango da ekintza.

Arratsaldeko 16:30etan bilduko dira bertan eta bi ordu geroago amaitutzat joko da ekintza, horrela, tailer hauek ordu erdi bat luzeagoak izango direlarik.

Tailer didaktiko hauetan leku guztietako gazte eta familiek parte hartu dezakete. Baserriaren munduaren inguruan kokatzen dira beti gaiak, eta jolastuz edo eskulan desberdinak eginez, gure arbasoen bizimodua hobeto ezagutzeko aukera zabaltzen zaie gazte eta helduei.

Beraz, bertan parte hartu nahi duten guztiek aldez aurretik izena eman beharko dute, bai Igartubeiti baserri museoan bertan; baita 943 72 29 78 telefono zenbakian; igartubeiti@gipuzkoa.net helbidean edo museoko web orrian.

M. GALILEA